



OÑATIKO UDALA

Telefona: 78 04 11

Fax: 78 30 69

20560 OÑATI

## ZINE ARETOKO ALOGERETAN BETE BEHARREKO ARAUAK

1. Kultur Etxeko zine aretoak 128 eserleku ditu.
2. Alogera tarifak:
  - Egun osoa 879.49 euro + %18ko BEZa
3. Guztiz galarazita dago Kultur Etxeko harreran mahaiak jartzea eta agiri banaketak egitea, une horretan Kultur Etxean irekita dauden bestelako zerbitzuak oztopatu daitezkeelako.

Edozelako agiri banaketak areto barruan egin beharko da.

4. Zeharo debekatuta dago:
  - Kanpoaldeko errotulazioa (aretoaren aurrealdean).
  - Errotulazioa harreran eta zine aretoko sarreran.

Baimenduko den bakarra elementu identifikatzaileak areto barruan jartzea izango da.

5. Debekatuta dago erretzea harreran edota areto barruan, eta ezingo dira janari edo edariak aretora sartu. Erre, jan edo edatea nahi izanez gero, lorategira atera beharko da.
6. Ekitaldietako etenak lorategian edo Kultur Etxe kanpoaldean egin beharko dira, harreran geratzen den jendeak ez ditzan gainerako zerbitzuak (liburutegia, KZ Gunea, mediateka...) eragotzi.
7. Debekatuta dago etxe barruan edota lorategian luntx-ak egitea.
8. Eskaerak honako helbide hauetan egin beharko dira, 15 eguneko aurretiaz:

[kultura.idazkaritza@oinati.net](mailto:kultura.idazkaritza@oinati.net)  
[kultura@oinati.net](mailto:kultura@oinati.net)

Epe laburragoan egindako eskaerak baimentzea Kultura Sailaren esku geratuko da.